

Euskal artearen aretoan aldaketak, San Telmo Museoa

Azken egunotan San Telmo Museoko erakusketa iraunkorreko "Euskal Artearen 100 urte" aretoan berrikuntzak egin ditugu. Jorge Oteiza, Nestor Basterretxea eta Mari Paz Jiménez-en lan berriak jarri ditugu ikusgai.

Arte Ederretako euskal artearen aretoan aldaketa batzuk egin ditugu San Telmo Museoa azken egunotan, erakusketa iraunkorra bizia izateko eta aberasten joateko asmoari jarraiki.

GAUR taldearen lanak biltzen dituen espazioan egin ditugu aldaketa hauek nagusiki, eta horrela, orain, Oteizaren lanak erakusten diren espazioan, *Pietatearentzako estudioa* izeneko pieza jarri dugu ikusgai. Pieza hau oso esanguratsua da, Arantzazuko Pietaterako eginiko estudioa baita. Zenbakitu gabeko hiru aleren bigarren edizioa da, bi material desberdinetan galdatua. 1992-1996 urteetan egin zen, 1969ko FMJO CR 00053 igeltsutik abiatuta. Obra hau depositoa jaso dugu.

Atal honetan bertan, Nestor Basterretxearen zazpi margolan jarri ditugu ikusgai, guztiak ere oso azpimarragarriak. Izan ere, horietako bat gutxienez GAUR taldearen inaugurazio erakusketan, Barandiaran galerian, egon baitzen. Lan multzo hau Basterretxea familiaren gordailua da, eta San Telmon artista honen eskulturari gehitzen zaio erakusketa iraunkorrean. Ekainean, gainera, margo hauetako bati buruz, *Izenbururik gabe* (1966) lanari buruz, arituko da Peio Aguirre "Superficies pictóricas en la obra de Nestor Basterretxea" hitzaldian, *Barne begiradak* zikloan -erakusketa iraunkorreko Arte Ederren atalean sakontzeko sortutako zikloan-.

GAUR taldeari eskainitako espazioan egindako aldaketez gain, aipagarria da ere Mari Paz Jiménez artistaren *Bi belaunaulkiak* koadroa jarri dugula. Lan hau San Telmoren erosketa bat da, egun museoan jorratzen ari garen ardatzetako batekin lotuta dagoena, emakume artisten obra gehitzea gure bildumetara eta erakusketara, azaroan inauguratuko dugun *Baginen*, *Bagara* erakusketaren harira.

Bihar bertan, gainera, maiatzak 5, Jiménez-en *Bi belaunaulki* lanaren inguruan arituko da Ane Lekuona Mariscal, Artearen Historian ikasketak egindakoa, hau ere *Barne begiradak* zikloaren programazioan. Ikuspuntu feminista batetik Mari Paz Jiménez (1909-1975) margolariaren ibilbidea birpasatuko du hizlariak. Oro har, artistaren obrek, baita bere ekintzek ere barneratzen zuten transgresioan jarriko du arreta. Hitzaldia euskaraz burutuko da, 19:00etan hasita, eta sarrera doakoa izango da, webgunearen bitartez lekua erreserbatuta. Zuzenean ere jarraitu ahal izango da museoaren webgunean.

Cambios en la sala de arte vasco, en el Museo San Telmo

En los últimos días hemos realizado modificaciones en la sala "100 años de Arte Vasco" de la exposición permanente del Museo San Telmo, donde presentamos nuevas obras de Jorge Oteiza, Néstor Basterretxea y Mari Paz Jiménez.

En la sala de arte vasco del Museo San Telmo hemos realizado algunos cambios en los últimos días, siguiendo la idea de que la exposición permanente sea una muestra viva y continúe enriqueciéndose.

Los cambios se han realizado principalmente en el espacio que reúne las obras del grupo GAUR. En este ámbito se ha expuesto la pieza de Jorge Oteiza titulada *Estudio para la Piedad, una* pieza muy significativa, ya que se trata de un estudio para la Piedad de Arantzazu. Es la segunda edición de tres ejemplares no numerados, fundidos en dos materiales diferentes. Realizado en 1992-1996 a partir del yeso FMJO CR 00053 de 1969. Hemos recibido esta obra en el depósito.

En esta misma sección hemos expuesto siete pinturas de Néstor Basterretxea, todas ellas obras destacadas. De hecho, al menos una de ellas estuvo presente en la exposición inaugural del grupo GAUR, en la galería Barandiaran. Este conjunto de óleos es un depósito de la familia Basterretxea y así se suma a la escultura de este artista en la exposición permanente de San Telmo. En junio, además, Peio Aguirre hablará sobre una de estas piezas incorporadas, *Sin título, 1966*, en la conferencia "Superficies pictóricas en la obra de Néstor Basterretxea", dentro del ciclo "Miradas personales", creado para profundizar en el apartado de Bellas Artes de la exposición permanente.

Además de los cambios realizados en el espacio dedicado al grupo GAUR, también es reseñable la incorporación del cuadro *Dos reclinatorios* de la artista Mari Paz Jiménez, a la exposición permanente del museo. Esta pieza es una compra de San Telmo, y está relacionada con una de las líneas de trabajo actuales en el museo, la incorporación de obra de mujeres artistas a nuestras colecciones y a la exposición permanente, al hilo de la muestra temporal Baginen, bagara, que se inaugurará en noviembre.

Mañana, además, Ane Lekuona, licenciada en Historia del Arte, hablará sobre *Dos reclinatorios* de Jiménez en la charla que ofrecerá en el museo, también dentro de la programación del ciclo "Miradas personales". Con una mirada feminista, la ponente repasará la trayectoria de la pintora Mari Paz Jiménez (1909-1975). Se centrará en la transgresión que interiorizaban las obras del artista, así como sus acciones. La charla se desarrollará en euskera, a partir de las 19:00 horas, y la entrada será gratuita, reservando plaza a través de la web. También se podrá seguir en directo en la web del museo.